



Kotxera etxebizitza

Aldaerak: Cochera de Abajo
Ahozkoa: Ategorridxe



Berriz Irudian

Cochera de Arribarekin, egun *Txirriena* (**Ikus Txirriena**) moduan ezagutzen den baserriarekin, guztiz erlazionatutako eraikina. Bata zein bestea *Palazioaren* eraikinak ziren bertako kotxeak, karruak, etabar gordetzeko. Kokapenari erreparatuta, honako hau *Cochera de Abajo* moduan dokumentatua izan da, nahiz eta herritarren artean beti *Kotxera* edo *Ategorridxe* moduan ezagutua izan den. Azken izen hau *Palazioaren* eremura sartzeko zegoen atearen kolorearekin lotu behar da.

Berriztarren jauregiaren lurretan, behealdean, haien zalgurdien gordeleku eta zaldizainen bizitokia zen etxea zegoen. XX. mende hasieran zabaldu zen euskal estilo berrian jaso zen, kokatuta dagoen erripari ondo egokituta. Euskal estilo berriarentzat baserria izan zen inspirazio-bidea, eta hala egin zuten etxe hau.

Fatxada nagusia palazioari begira zegoen eta bertan hiru pisu bereizten ziren. Behekoan, adierazgarria arkudun atartea zen eta bere alboetan leiho bana zabaldu zuten, dintel

toponimia

Etxe eder honen izena, Kotxera, autoak gordetzeko berezko eginkizunetik dator.



tarteko irtenguneak, ezproi gisa, harrizko mentsulen gainean. Materialen nahasketa ere gustuko zuten, eta fatxada luzituak nabarmendu baziren ere, egurra, harria eta adreilua ere erabili zuten, etxe honen ganbara aldean bezala.